

NEW YORKEKO EUSKALDUNA

1932ko argazki ezagunean ageri den balmasedarraren istorioa berregin dute

Hurrengo as-
teetan, oso
istorio bi-
txia aletu-
ko duen li-
b u r u a k

argia ikusiko du: “Un vasco en Nueva York. La historia de Ignacio Ibarguen” (Editorial Harresi) du izenburua. Lana argitaratzearen atarian, Juan Tomas Saez “Pikizu” egilearekin hitz egin du GAUR8k. Argazkilaria, bideoografoa... eta Enkarterrietako historiarekin lotutako gaien ikertzaile eta idazle bizkaitar horren eskutik, 1932an, Rockefeller Centerren eraikuntza lanetan, burdinazko habe baten gainean ageri diren 11 langileen argazki historikoan jarriko dugu begirada, irudiak Euskal Herriarekin duen loturara gerturatuz.

Ez da erraza aurreko mendearen hasieran abiatzen den pertsona (orain arte) anonimo baten ibilbidearen pista jarraitzea, zailagoa oraindik herria atzean utzi eta munduan zehar ibilia bazen. Horrek ere berezi egiten du Pikizuren kontakizuna. Ikerketa lan handia –ezustez eta kasualitatez josia– egon da XX. mendearen hasierako AEBetako langile talde batean dagoen balmasedarraren ibilbidea berregiteko.

Istorioren abiapuntura itzuliko gara. “Lunch atop a Skyscraper” (Hamaiketakoa etxe orratz baten gainean) izeneko argazkia da kontakizunaren ardatza. 1932. urteko irailaren 20an egin zen argazki hori, eraikuntza lanetan zegoen Rockefeller Center etxe orratzean. Charles Clyde Ebets da irudiaren egilea, eta eraikuntzako langileak dira irudian ageri 11 beharginak. 69. solairuan daude, hamaiketakoa egiteko atsedendian, 260 metroko altueran.

 **HISTORIA /** Nerea GOTI

1932an Rockefeller Center eraikitzen ari zirela, hamaika langile igo ziren habe batera argazki ikonikorako pausatzeke. Orain gutxira arte ez genekiena zen, irlandar, esloveniar eta indiar horien artean, euskaldun bat ere baze-goela. Ignacio Ibarguen zuen izena, eta haren istorioa beste balmasedar batek bildu du liburu batean.

Bertigoia eragiten duen irudi horretan, segurtasun neurri-rik gabe ageri dira langileak. Hizketan daude batzuk, erre-tzen beste batzuk, egunkaria irakurtzen... Argazkirako pau-satu zirela diote, baina tanke-ra horretakoak ziren lan bal-dintzak garaian, eta horren isla ere bada argazki ezaguna, 1929ko krak ekonomikoaren atzean, “Depresio handia” ize-narekin ezagututako krisialdi

sakon hartan, lana galdu zu-ten asko eraikuntza bezalako lanpostuetara jotzeko beha-rrean egon baitziren, gure pro-tagonista kasu.


Azken hamarkadetan, argaz-ki horretan ageri diren langi-leak banan banan identifika-tzen joan dira. Amerikako Estatu Batuetako (AEB) indige-nak daude, irlandar eta eslove-niar migratzaileak, eta duela gutxira arte ezezaguna zena:

Juan Tomas Saez «Pikizu»,
«Un vasco en Nueva York. La
historia de Ignacio
Ibarguen» liburuaren egilea.
Raul BOGAJO | FOKU

euskaldun bat ere badago lan-gile talde horretan. Ezkerretik hasita, bigarrena da Ignacio Ibarguen izeneko bizkaitarra. XIX. mendearen hasieran, Es-painiako Armadan derrigo-rrezkoa zen soldaduska egite-tik ihes egin zuen. Beste euskaldun askok bezala, adin nagusitasunera heltzeaz ze-goela jaioterritik alde egin zuen balmasedarrak.

Ondoan duen laguna, ezke-rreko muturrekoa, Matty O’Shaughnessy irlandarra da. Erretzen ageri da, eta hari sua ematen, Natxo Ibarguen bal-masedarra. Argazkia “New York Herald Tribune” egunka-riko igandekarian argitaratu zen, urriaren 2an. Urte batzuk beranduago heldu zen albistea Balmasedara, eta haren berri nola izan zuten kontatu dute.

Iñaki Ibarguen AEBetara emigratutako Ibarguen ospe-



tsu horren iloba zen. Deustoa-
rrak Abesbatzako kidea zen
Bilbon, eta Enrique Murgoitio
kazetaria ere taldeko kidea
zen. Hari eman zion istorio
honen berri. Emandako infor-
mazioarekin txosten txiki bat
prestatu zuen Murgoitiok, eta
Bilboko bi egunkaritarak bidali
zuen, baina ez zuten gaia argi-
taratu.

«Handik urte batzuetara,
behin jubilatuta, paperak or-
denatzen ari zela, informazio
hau guztia agertu zen eta gal
ez zedin nirekin jarri zen ha-
rremanetan, istorioa Balmase-
dako Harresi elkartearen es-
kuetan jartzeko, ezagutzen
zuelako historia gaiak ikertzen
eta argitaratzen genituela, or-
durako bageneuzkan Balmase-
dari buruzko 50 liburu temati-
ko inguru... eta informazio
guztia pasatu zidan», gogoratu
du Pikizuk.

Hasierako datu guztiekin,
informazio gehiago lortzea
izan zen lehen erronka. Aipatu
du Bizkaiko Foru Aldundiko
langile batek Family Search
webgunera bideratu zuela.
«Informazio asko dago hor, fa-
milia baten zuhaitza egiteko
eta haien bizitzak berregiteko
modukoa», azaldu du balma-
sedarrak. Genealogiari buruz
horrenbeste dokumentazio
gordetzen duen espazio ho-
rren harira, kontatu du mor-
moiek sortutako tresna dela,
euren erlijioaren agindua ja-
rraituz. «Eurek eskaneatzen
eta digitalizatzen dituzte mila-
ka agiri, eta mundu guztiaren-
tzako eskuragarri jartzen di-
tuzte», zehaztu du.

Gauza da senideek emanda-
ko informazioarekin eta tres-
na horren bidez lortutakoare-
kin, Ignacio Ibarguenek
Balmasedatik irten ostean
egindako mugimenduak eta
New Yorken zuen bizimodua

**Argazki ikonikoan senide bat ageri zela era
bitxi batean ezagutu zuen hemengo familiak,
kasualitatez irudia erakutsi eta semeak esan
zienean bere aita agertzen zela**

**Balmasedarraren ibilbidea berregin dute,
herritik alde egin eta Argentinara joan zenetik,
handik Europara eta New Yorkera, eraikuntzan
lanean hasi eta Brooklynen instalatu arte**

berregiteko aukera izan dute-
la. Ignacio Ibarguen Moneta
Balmasedan jaio zen, 1899an.
Bere osaba baten ezizena jaso
zuen herrian, eta hari “Volun-
tario” ere esaten zioten. Igna-
cio Ibarguen Urrutia zuen aita,
balmasedarra, eta Micaela Mo-
neta Luzuriaga ama, nafarra,
Murieta herrikoa.

ARGENTINARA IHESI

1919. urtean, hogeitaz bete-
tze gertu, sorterrira atzean
utzi eta Argentinarako bidean
itsasoratu zen. Ez zen atzerrira
jotzen zuen familiako kide ba-
karra. Harresi editorialaren
webgunean kontatu du Piki-
zuk hiru anai nagusiek ere er-
bestera egin zutela arrazoi
berberagatik, soldaduska ez
egiteko. Hamar anai-arreben
arteko seigarrena zen Ignacio.

Gerra Karlistetan aditua,
hainbat liburu argitaratu du
gaiaren inguruan Juan Tomas
Saezek. Soldaduskaren afera
honen inguruan galdetuta, go-
gora ekarri du Hirugarren Ge-
rra Karlista bukatu ondoren,
Alfonso XII.aren gobernu libe-
ralak euskal foruak indargabe-
tu zituela. «Zer esan nahi zuen
horrek? Euskal gazte guztiak
behartuta zeudela armada es-
painolean zerbitzatzen. Ordu-
ra arte soldaduska egitetik li-
bre zeuden, eta lurraldea
babesteko baino ezin ziren
mobilizatuak izan», azaldu du

ikertzaileak. Ibarguen gaztea-
ren garai haiek garai nahasiak
ziren, gainera, Estatu espaino-
larentzat, zenbait gerratan sar-
tuta baitzegoen, Maroko, Ku-
ba, Filipinas...

Aukera bat zegoen soldadus-
katik libratzeko, diru bat or-
dainduta. 2.000 pezeta exiji-
tzen zituen Estatuak, «baina
kontuan hartu behar da ga-
raian mediku batek eta maisu
batek urtean 1.000 pezeta ira-
bazten zituztela. Gehien-
gehienentzat ezinezkoa zen
ordainketa horri aurre egitea,
eta ihes egiten hasi ziren». «Borde-
letik linea erregularra
zegoen Hego Amerikarekin,
han itsasoratzen ziren», aipa-
tu du Pikizuk. Gaineratu du
asko izan zirela alde egin zu-
ten gazteak, zorte ezberdine-
kin, atxilotuak izan baitziren
asko ihes egiten saiatzen ari
zirela; «Oso zigortuta zegoen
hau guztia, iheslariak ziren».

Buenos Airesen zeuden bere
hiru anai nagusiak, eta horre-
gatik joango zen hara, baina ez
zen bertan denbora luzean
egon. Marinel ingelesez greba
bat aprobetxatuz, merkantzia-
ontzi batean sartu zen eta In-
galaterrara joan zen. Makina-
gelan lan egiten zuen. Ondorengo
urteetan nabiga-
tzen jarraitu zuen Ignacio
Ibarguen “Voluntario”-k Euro-
pako hainbat portutatik eta
Errusiatik igaroz. 1921ean New



«Lunch atop a Skyscraper»
1932ko argazki ikonikoan,
Balmasedako herritar bat
ageri da langileen artean.
GETTY IMAGES

Yorkera heldu zen eta bertan
geratzeko adierazpena egin
zuen, baina lehenengoan ez
zioten herritartasuna eman.

New Yorken ezagutu zuen
bere emaztea izango zena,
beste bizkaitar bat: Esperanza
Ojinaga. Berangon zituen sus-
traiak Ojinagak. Ikerketan ba-
da argitu ezin izan duen datu
bat: «New Yorken jaioa zen,
eta Berangon bizi zen. Sei ur-
terekin, osaba batek lagundu-
ta, New Yorkera bidaiatu zuela
esaten da. Bada argitu ezin
izan dudan gauza bat, zeren
arraroa da haur hain txiki ba-



tek Atlantikotik bi aldiz bidaia-tu izana, aipatu du Pikizuk.

Hamasei urte zituen Ojinagak Ibarguenekin ezkondu zenean, hamaika urte zaharra-goa zen bera. Ezaguna da Brooklyn-en instalatu zirela, portutik oso gertu zegoen kale batean. Jakin izan dute eskola batean aritu zela denbora batez, berogailuaren instalazioetan, eta eraikuntzako langile bezala bukatu zuela Rockefeller Centerren lanetan. «29ko crack-a eta osteko depresio handiaren garaian, porrot egin zuten makina bat

bankuk, enpresak eta ontzi-enpresak. Orduan, gizon hau lanik gabe geratu zen. New Yorkeko kazetari batek bidali

Ibarguenen pasadizoari buruzko lana Editorial Harresin aurkituko dute irakurleek, baita Balmasedako liburudendetan ere, eta hitzaldiak ere eskainiko dituzte gaiaren harira

Saezek azaldu dueenz, argitaletxearen webgunean bertan eskuragarri dagoen formularioaren bidez lotuko dituzte gaiaren inguruko solasaldiak

didan informazio baten bidez badakigu ikastetxe bateko berogailuaren arduradun gisa lan egin zuela», zehaztu du.

Lau seme-alaba izan zituen, baina bi oso txikitan hil ziren. Lehenengo semearen kasuan, jakin dute urte ta erdi inguru-rekin hil zela, «ez dakigu zer gertatu zitzaion, baina garaian nahiko ohikoa zen haurrak txikitan hiltzea, eta beste alaba bat ere galdu zuten urte gutxirekin». Ignacio Ibarguen bera 57 urterekin hil zen, eta ez zen Balmasedara itzuli. «Suposatzekoa da argazki ospetsua ezagutu zuela, egunkari batean argitaratu baitzen», esan du Pikizuk.

KASUALITATEZKO OPARI HURA

Esperanza Ojinagak harremana zeukan senarraren familia-rekin. Gutunen bidez zegoen kontaktuan Ignacioren anai batekin, eta haren bidez, alargundu zenean, Bilboko Uribarri auzoan bizi zen Felisa Ibarguen koinata bisitatu zuen. Eta handik Balmasedara abiatu zen, gainontzeko senideak ezagutzeko. «AEBetara itzuli zen eta nik dakidala ez zen berriz etorri; hortaz, Esperanza ez zen albistearen emailea izan», argitu du Pikizuk. Bai, ordea, Peter Donald semea, Euskal Herria hainbatetan bisitatu zuena.

Peter Donalden bidaia haiei buruz jakin da opari askorekin etortzen ohi zela, eta harreman handia zeukala Javier lehengusuarekin. «Hemen zegoenean batez ere berarekin egoten zen, bertan ematen zituen 15-20 egunetan, eta elkarrekin bisitatzen zuten herrialdea. Donaldekin interes handia zeukan euskararekiko eta euskal kulturarekiko. Izan ere, Euskal Etxearekin kontaktatu zuen han, euskara ikasten

saiatu zen... eta interes handia zeukan hona, bere aitaren herrialdera, bizitzera etortzeko», kontatu du Saezek.

Pasa den mendearen 80ko hamarkadan, Euskal Herrira egin zuen horrelako bidaia batean, «beste batzuetan bezala, opari batzuk ekarri zituen: NBaren elastikoak... Eta Javier eta emazteari New Yorkeko zerbeit oparitzea okurritu omen zitzaien; «Burdinazko habian ageri diren langileen irudi markoztatu bat zen, hain justu ere. Ikusi zuenean, Peter Donald hunkitu egin zen, eta orduan, irudia seinalatuz, esan zien 'bada, hau nire aita zen'».

Istoriaren atal guztiak jaso ditu Saezek artikulua ezberdinetan, eta Harresi elkartearen webgunean jarri ditu eskuragarri. Bereziki eskertu du Juan Tomas Saezek Javier Ibarguenek emandako informazioa. Zehaztu duenez, Argentinara joandako Ibarguen anaien artean bakarra itzuli zen Euskal Herrira, Carmelo, Javierren aita zena, eta horregatik, informatzaile nagusietako bat izan da istorio honetan guztian. Liburua argitaratzen denean herriko historiarekin beste kapitulu bat itxiko du Saezek. GAUR8ri kontatu zionez, kasualitatez sortu zen gai hau, baina bere egiletza duten beste asko ditu mahai gainean, bereziki Gerra Karlistekin lotutakoak, baina ez horrekin bakarrik, hainbat lan egin baitu memoria historikoarekin lotuta, besteak beste Gogorarentzat. Saezek dioenez, gustuko izan ditu tokiko informazioa, historia eta kultura jasotzea, hari balioa emateko era eraginkorrena delako. Ibarguenen istorio hau Enkarterrietan egindako urteetako lan horretan kokatzen du, istorioek historia egiten dutelako.